Serie Programa Marco Ambiental Nº 4 Enero 2002
Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 4.zk. Urtarrilak 2002

COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS
EUROPAKO ERKIDEGOEN BATZORDEA

# Estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible

## Desarrollo sostenible en Europa para un mundo mejor



# Garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia

## Mundu berria lortzeko garapen jasangarria Europan

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

IHOBE
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Sociedad Pública Gestión Ambiental

## Serie Programa Marco Ambiental

– **Nº 1 Noviembre 2000.** "Impacto Económico del Gasto y la Inversión Medioambiental de la Administración Pública Vasca"
– **Nº 2 Mayo 2001.** "Ecobarómetro Social 2001"
– **Nº 3 Octubre 2001.** "Medio Ambiente en el País Vasco"
– **Nº 4 Enero 2002.** "Estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible"

## Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

– **1.zk. Azaroak 2000.** "Ingurugiroan Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioak Egindako Gastu eta Inbertsioen Inpaktu Ekonomikoa"
– **2.zk. Maiatzak 2001**. "2001 Ekobarometro Soziala"
– **3.zk. Urriak 2001**. "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan: Laburpena"
– **4.zk. Urtarrilak 2002**. "Garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia"

**Edita:**
Comisión de las Comunidades Europeas 2001
Gobierno Vasco, Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente
Sociedad Pública de Gestión Ambiental - IHOBE

**Diseño:**
Dual XJ. Comunicación & Diseño

**Traducción:**
Elhuyar
La responsabilidad de la traducción al euskera de la versión original en castellano es de IHOBE, S.A.

**Depósito Legal:**
BI-0016-02

Impreso en papel reciclado 100 %

**Argitaratzailea:**
Europako Erkidegoen Batzordea 2001
Eusko Jaurlaritza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
Ingurumen Iharduketarako Sozietate Publikoa - IHOBE

**Diseinua:**
Dual XJ. Comunicación & Diseño

**Itzulpena:**
Elhuyar
IHOBE, S.A.rena da gaztelaniazko jatorrizko bertsioa euskaratzearen erantzukizuna.

**Lege Gordailua:**
BI-0016-02

% 100 paper birziklatuan inprimatua

# Estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible

## Desarrollo sostenible en Europa para un mundo mejor



# Garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia

## Mundu berria lortzeko garapen jasangarria Europan


COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS

**EUROPAKO ERKIDEGOEN BATZORDEA**



Bruselas, 15.05.2001

Brusela, 2001.05.15



**Sabin Intxaurraga**

Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua

La Estrategia Europea para un Desarrollo Sostenible que aquí se presenta fue aprobada en la Cumbre de Gotemburgo en junio de 2001. Esta Estrategia recoge los retos y las oportunidades que conlleva el desarrollo sostenible

Los problemas más urgentes en los que se centra la estrategia están relacionados con **el cambio climático** y sus efectos, los posibles **peligros para la salud pública** de los numerosos productos químicos que se utilizan actualmente, el aumento de **la presión sobre algunos recursos naturales, la pobreza y la exclusión social, el envejecimiento de la población** y **la congestión y contaminación** que origina el transporte, sobre todo aéreo y por carretera.

Algunos de estos problemas pueden ser muy costosos o imposibles de corregir si se espera demasiado para tomar medidas, por eso es importante actuar con urgencia y decisión, desarrollando políticas innovadoras que rompan la relación directa que se da entre crecimiento económico y generación de impactos.

El desarrollo sostenible debe situarse en el centro del mandato de todos los responsables políticos. La dimensión global de las cuestiones ambientales requiere la integración del concepto de sostenibilidad en las distintas políticas sectoriales para que, de este modo, se refuercen mutuamente, se adopten soluciones de compromiso basadas en decisiones informadas y que los objetivos sociales y medioambientales se cumplan con el mínimo coste económico.

El éxito de cualquier estrategia de desarrollo sostenible depende básicamente del cambio de comportamiento de las personas, por eso los gobiernos debemos hacer todo lo posible para educar e informar a las empresas y a la ciudadanía para que todos seamos más conscientes de los costes ambientales que

Hemen aurkezten dugun Garapen Jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia Goteborgeko goibilkuran onartu zuten, 2001eko ekainean. Estrategia horretan ageri dira, hain justu, garapen jasangarriak dakartzan erronkak eta aukerak.

Honako arazo hauei eskaintzen die arreta berezia estrategiak: **klimaren aldaketari** eta horren ondorioei, gaur egun erabiltzen diren produktu kimikoek **osasun publikoan eragin ditzaketen kalteei, natur baliabide batzuekiko presioa handitzeari, pobreziari eta baztertze sozialari, herritarren zahartzeari** eta **garraioak** –batez ere airezkoak eta errepidezkoak– **sortzen duen kongestioari eta poluzioari**.

Arazo horietako batzuk konpontzea oso garestia, edo ezinezkoa, gerta liteke, baldin eta gehiegi itxaroten bada neurriak hartzeko. Horregatik da garrantzizkoa garaiz eta kementsu jardutea, hazkunde ekonomikoaren eta ingurumen-inpaktuen arteko zuzeneko harremana eteteko politika berritzaileak garatzea.

Garapen jasangarriak izan behar du arduradun politiko guztien kezka nagusia. Ingurumen-arazoak globalak, orokorrak, direnez, jasangarritasun-kontzeptua sektore guztietako politiketara helarazi behar da. Horrela eginez gero, elkarren sendogarri izango dira sektorekako politikak, konponbideak erabakitzerakoan behar hainbat informazio izango da eskura eta, azkenik, kostu ekonomiko askoz txikiagoa izango dute gizarte- eta ingurumen-helburuek.

Herritarren portaera edo jokabidea aldatzean datza garapen jasangarrirako edozein estrategiaren arrakasta. Horregatik egin behar dugu gobernuok ahal dugun guztia enpresak eta herritarrak informatzeko eta kontzientziatzeko, denok ohar gaitezen zer nolako ingurumen-kostuak dakartzaten gure hazkunde

está produciendo nuestro actual modelo de crecimiento económico y de consumo, así como de las posibles alternativas que nos conduzcan por la senda de la sostenibilidad.

Los principales retos que plantea la Unión Europea para conseguir los objetivos de un desarrollo sostenible han quedado reflejados en la nueva política ambiental que surgirá del Programa Marco Ambiental 2000-2012 que se está llevando a cabo en nuestra Comunidad Autónoma.

Sabin Intxaurraga, Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco

ekonomiko eta kontsumo-ereduek eta, bidenabar, jasangarritasunaren bidetik eramango gaituzten alternatibak aurki ditzagun.

Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ari den Ingurumen Esparru Programa 2000-2012tik sortuko den ingurumen-politika berrian ageri dira garapen jasangarriaren helburuak lortzeko Europako Batasunak finkatutako erronka nagusiak.

**Sabin Intxaurraga,** Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburua.



COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS
EUROPAKO ERKIDEGOEN BATZORDEA

Bruselas, 15.05.2001

# COMUNICACIÓN DE LA COMISIÓN

## Desarrollo sostenible en Europa para un mundo mejor: Estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible

(Aprobada en el Consejo Europeo de Gotemburgo de Junio 2001)

Brusela, 2001.05.15

# BATZORDEAREN JAKINARAZPENA

## Mundu berria lortzeko garapen jasangarria Europan: Garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia

(Batzordearen proposamena Europako Kontseiluaren aurrean, Goteborg-eko bileran)

### I. HACIA UNA EUROPA SOSTENIBLE

*"El desarrollo sostenible es aquél que satisface las necesidades actuales sin poner en peligro la capacidad de las generaciones futuras de satisfacer sus propias necesidades." - Comisión mundial para el desarrollo del medio ambiente* ("Comisión Brundtland"), 1987

En su reunión de Helsinki de diciembre de 1999, el Consejo Europeo invitó a la Comisión Europea a *"elaborar una propuesta de estrategia a largo plazo que integre políticas de desarrollo sostenible desde el punto de vista económico, social y ecológico, y que deberá presentarse al Consejo Europeo en junio de 2001"*. El presente documento constituye una respuesta a dicha invitación y se basa en el documento de consulta que los servicios de la Comisión presentaron en marzo, así como en las numerosas respuestas que suscitó.

El desarrollo sostenible debería considerarse un objetivo global - Comisión Brundtland

El desarrollo sostenible es un objetivo de alcance mundial. La Unión Europea debe desempeñar un papel fundamental para conseguirlo, tanto en Europa como a escala mundial, lo que requerirá una amplia acción internacional. Para cumplir esta responsabilidad, la Unión Europea y los demás signatarios de la "Declaración de Río" de las Naciones Unidas (1992) se comprometieron, en la 19ª sesión especial de la Asamblea General de las Naciones Unidas

### I. EUROPA JASANGARRIRANTZ

*"Garapen jasangarria: gaur egungo beharrak asetzen dituena, geroko belaunaldiei arriskuan jarri gabe beren beharrak asetzeko ahalmena". – Ingurumena garatzeko mundu-batzordea* ("Brundtland batzordea"), 1987

1999ko abenduan Helsinkin eginiko bileran honako eskaria egin zion Europako Kontseiluak Europako Batzordeari: *"Epe luzerako estrategia-proposamena presta dezala, ikuspuntu ekonomiko, sozial eta ekologikotik jasangarriak diren politikak bereganatuko dituena, 2001eko ekainean Europako Kontseiluari aurkezteko"*. Gonbit hari emandako erantzuna da honako txostena, eta Batzordearen zerbitzuek martxoan aurkeztutako kontsulta-txostena du oinarri, baita hark eragindako erantzun-andana ere.

Helburu globala, mundu osokoa, izan behar du garapen jasangarriak – Brundtland Batzordea

Mundu osorako helburua da garapen jasangarria. Europako Batasunak eginkizun izugarria du helburu hori gauza dadin, bai Europan bai mundu osoan, eta nazioarteko ekimen zabala beharko da horretarako. Erantzukizun hori dela-eta hitzeman zuten Europako Batasunak eta "Rioko Deklarazioa" sinatu zuten gainerako herrialdeek –Nazio Batuen Erakundearen 19. Batzar Orokorrean, 1997an– horretarako estrategiak eratuko zituztela 2002ko Garapen Jasangarriari

de 1997, a elaborar estrategias en este sentido para la Cumbre Mundial sobre el Desarrollo Sostenible de 2002. Esta estrategia es parte de los preparativos de la Unión Europea ante dicha Cumbre.

## Una visión más amplia a largo plazo

Hace poco más de un año, en Lisboa, el Consejo Europeo definió un nuevo objetivo estratégico para la Unión: "convertirse en la economía del conocimiento más competitiva y dinámica del mundo, capaz de un crecimiento económico sostenible con más y mejor empleo y una mayor cohesión social". El Consejo Europeo de Estocolmo decidió que la estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible debe completar este compromiso político, y basarse en él, incluyendo una dimensión medioambiental. Se reconoce así que, a largo plazo, *el crecimiento económico, la cohesión social y la protección del medio ambiente deben ir de la mano.*

### Completar y consolidar la estrategia de Lisboa

El desarrollo sostenible ofrece a la Unión Europea una *visión positiva a largo plazo* de una sociedad más próspera y justa y que promete un medio ambiente más limpio, seguro y sano – una sociedad que permite una mayor calidad de vida, para nosotros, para nuestros hijos y para nuestros nietos. Para conseguirlo en la práctica es necesario que el crecimiento económico apoye al progreso social y respete el medio ambiente, que la política social sustente los resultados económicos y que la política ambiental sea rentable.



### Una estrategia que dé rienda suelta a las inversiones a largo plazo

Desvincular el deterioro ambiental y el consumo de recursos del desarrollo económico y social requiere una reorientación profunda de las inversiones públicas y privadas hacia nuevas tecnologías respetuosas en el medio ambiente. La estrategia para un desarrollo sostenible debería ser un *catalizador para los responsables políticos y la opinión pública* en los próximos años, así como una fuerza motriz para la reforma institucional y los cambios en el comportamiento de las empre-

buruzko Mundu Gailurrerako. Goi-bilkura horretarako Europako Batasuna egiten ari den prestakizunen osagaietakoa da honako estrategia.

## Ikuspegi zabalagoa eta epe luzeagoan

Helburu estrategiko berria finkatu zuen Europako Batasunarentzat duela urtebete pasatsu Lisboan Europako Kontseiluak: "Munduko ezagutzaren ekonomia lehiakorren eta dinamikoena bihurtzea, hazkunde ekonomiko jasangarriarekin batera enplegu gehiago eta hobea sortzeko gai dena, baita gizartekohesio handiagoa ere". Stockholmen eginiko Europako Kontseiluaren bilerak erabaki zuenez, garapen jasangarria lortzeko Europako Batasunaren estrategiak osatu egin behar du konpromiso politiko hori eta –ingurumen-ikuspegia erantsirik– berori hartu oinarritzat. Onartu egin zen, horrenbestez, *epe luzera elkarri uztartuta ibili behar dutela hazkunde ekonomikoak, gizarte-kohesioak eta ingurumenaren babesak.*

### Lisboako estrategia osatu eta sendotu

Hona zer eskaintzen dion garapen jasangarriak Europako Batasunari: gizarte aberats eta bidezkoago *baten epe luzerako ikuspegia*, ingurumen garbiago, seguruago eta osasungarriagoa izango dituena, guri eta geure seme-alaba zein ilobei bizi-kalitate hobea ekarriko digun gizartea. Hori lortzeko, beharrezkoa da hazkunde ekonomikoak aurrerapen soziala bultzatzea eta ingurumena errespetatzea, gizarte-politikak emaitza ekonomikoak sostengatzea eta, azkenik, ingurumen-politika errentagarria izatea.

### Epe luzerako inbertsioak sustatuko dituen estrategia

Ingurumenaren hondamena eta baliabideen kontsumoa garapen ekonomiko eta sozialetik bereizteko, aldaketa izugarria egin behar da inbertsio publiko eta pribatuetan: ingurumena errespetatzen duten teknologia berrietara bideratu behar dira. *Garapen jasangarrirako estrategiak katalizatzailea* behar du izan ondorengo urteotan bai arduradun politikoentzat bai iritzi publikoarentzat, baita indar bultzagilea ere erakundeak aldatzeko eta enpresen zein kontsu-

sas y de los consumidores. *Unos objetivos claros, estables y a largo plazo* crearán las expectativas y condiciones necesarias para que las empresas inviertan con confianza en soluciones innovadoras y creen nuevos puestos de trabajo de alta calidad.

Para plasmar esta visión ambiciosa en actos políticos concretos, la Comisión propone una estrategia centrada en un número limitado de problemas que supongan amenazas graves o irreversibles para el bienestar futuro de la sociedad europea:

### Principales amenazas al desarrollo sostenible

- Las emisiones de gases de efecto invernadero producidas por la actividad humana están provocando un **calentamiento global**. Es probable que el cambio climático genere más episodios meteorológicos extremos (huracanes, inundaciones), con serias implicaciones para las infraestructuras, los bienes raíces, la salud y la naturaleza.
- Existe un grave peligro para la salud pública debido a nuevas **cepas resistentes a los antibióticos en algunas enfermedades** y la posibilidad de que los **miles de productos químicos que se utilizan en la actualidad tengan efectos a más largo plazo**; las amenazas a la **seguridad alimentaria** crecen de forma preocupante.
- Uno de cada seis europeos vive en situación de **pobreza**. La pobreza y la exclusión social tienen efectos directos gravísimos para las personas, que pueden reflejarse en mala salud, suicidios o desempleo persistente. La carga de la pobreza recae de forma desproporcionada en las madres solas y en las mujeres mayores que viven sin compañía. Se observa asimismo en la pobreza una tendencia marcada a la repetición: el problema suele permanecer en una familia durante varias generaciones.
- Aunque no cabe sino alegrarse por la mayor esperanza de vida, si ésta se combina con un índice de natalidad bajo, el **envejecimiento** de la población consiguiente amenaza el ritmo del crecimiento económico, así como la calidad y la sostenibilidad financiera de los regímenes de pensiones y de sanidad pública. En muchos Estados miembros, en el período 2000-2040, los gastos podrían aumentar hasta alcanzar un 8% del PIB.
- La **pérdida de biodiversidad** en Europa se ha acelerado de forma drástica en las últimas décadas. Las poblaciones de peces en aguas europeas están al borde del colapso. Los **volúmenes de residuos** crecen de forma constante a mayor ritmo que el PIB. La **erosión** y el declive de la fertilidad afectan a la viabilidad de algunas regiones rurales.
- La **congestión en el transporte** ha aumentado rápidamente y está llegando a la paralización total. Esto afecta ante todo a las zonas urbanas, que también se ven afectadas por problemas de degradación de los barrios céntricos, expansión del extrarradio y concentración de bolsas de pobreza y exclusión social. Los **desequilibrios regionales** en la Unión Europea siguen siendo un problema preocupante.



mitzaileen jokaerak aldarazteko. *Helburu argiak, egonkorrak eta epe luzerakoak behar dira itxaropen eta baldintza egokiak sortzeko*, enpresek konfiantza osoz inberti dezaten konponbide berritzaileetan eta goi-mailako lanpostu berriak sor ditzaten.

Egitasmo bikain hori ekimen politiko zehatzetan gauzatzeko honakoa proposatzen du Batzordeak: Europako gizartearen etorkizuneko ongizaterako arrisku larri edo itzulezinezko gerta daitezkeen bakan batzuei ekitea, horretara bideratzea estrategia:

### Garapen jasangarriaren aurkako mehatxu nagusiak

- **Berotze globala** ari dira eragiten giza jarduerak sorrarazitako berotegi-efektudun gasen emisioak. Litekeena da klimaren aldaketak muturreko fenomeno meteorologiko gehiago eragitea (urakanak, uholdeak...), eta horrek ondorio larriak izatea azpiegituretan, funts-ondasunetan, gizakion osasunean eta naturan.
- Osasun publikorako arrisku larria dago, zenbait **antibiotikori erresistentzia dieten** andui berriak agertu baitira gaixotasun batzuetan; baliteke, bestalde, gaur egun erabiltzen diren **milaka produktu kimikoek epe luzeragoko ondorioak ekartzea**; **elikagaien segurtasunaren** aurkako mehatxuak, adibidez, kezkatzeko moduan hazi dira.
- Europako sei herritarretatik bat **pobrezia-egoeran** bizi da. Pobreziak eta bazterketa sozialak ondorio zuzenekoak eta larri-larriak dituzte gizakiengan; osasun txarra, suizidioak eta langabezia iraunkorra dira, zenbaitetan, horren ondorioetako batzuk. Pobreziaren zama, gainera, bikotekiderik gabeko amen eta bakarrik bizi diren adineko emakumeen bizkar gainetara proportzioz kanpo jausten da. Bestetik, errepikatze- edo jarraipen-joera nabarmena ere ageri du pobreziak: izan ere, askotan hainbat belaunaldiz iraun ohi du arazoak familia berean.
- Bizi-itxaropena luzatu izanak, berriz, denok pozten gaitu; baina horrekin batera baldin badator jaiotza-tasa txikia, biztanleriaren **zahartzeak** arriskuan jar lezake hazkunde ekonomikoaren martxa, baita pentsioen eta osasun publiko-sistemen kalitatea eta bideragarritasuna ere. EBko estatu askotan BPGren % 8raino igo daitezke gastuak 2000-2004 epean.
- **Bioaniztasunaren galera**, bien bitartean, izugarri bizkortu da Europan azken hamarkadetan. Desagertzeko zorian daude Europako uretako hainbat eta hainbat arrain-mota. **Hondakin-kopuruak**, berriz, etengabe hazten dira, BPGa baino azkarrago. **Lurraren higadurak** eta emankortasun-galerak koloka jartzen du hainbat landa-eremuren bideragarritasuna.
- **Garraioaren kongestioa** ere bizkor ari da areagotzen, eta erabateko mugiezintasuna ez legoke urruti. Hiriguneetan nabaritzen da, batez ere, arazo hori, beste zenbaitekin batera: erdiguneko auzoen hondamena, hiriinguruen hedapena eta gizarte-bazterketa zein pobreziaguneen kontzentrazioa. Europako Batasuneko **herrialdeen arteko desorekak**, bestalde, arazo kezkagarri izaten jarraitzen du.



Muy pocas de estas tendencias insostenibles son nuevas. Se han intentado resolver estos problemas desde varios niveles del gobierno y de la sociedad. Varias iniciativas, como el Programa 21 local, han demostrado ser eficaces a la hora de alcanzar un consenso para el cambio a escala local. Pero, hasta la fecha, estos esfuerzos sólo han cosechado un éxito limitado, ya que resulta muy difícil cambiar las políticas establecidas y las pautas de comportamiento adquiridas y aportar respuestas conjuntas de forma coordinada. Así pues, para contrarrestar estas tendencias insostenibles y alcanzar la visión que ofrece el desarrollo sostenible, se necesita: una ***actuación urgente***; un ***liderazgo político***, con compromisos claros y amplias miras; ***un enfoque nuevo en la formulación de políticas;*** una amplia ***participación***; y una ***responsabilidad internacional.***

## La resolución de estos problemas requiere un nuevo orden del día político

- ***Se necesita una actuación urgente.*** Ha llegado el momento de afrontar los retos de la sostenibilidad. Muchas de las tendencias que amenazan el desarrollo sostenible se deben a opciones pasadas en materia de tecnologías de producción, pautas de utilización del suelo e inversiones en infraestructura, que difícilmente pueden invertirse en un plazo reducido. Si bien es cierto que los principales efectos de las pérdidas de biodiversidad, de la resistencia creciente a los antibióticos o del cambio climático pueden no producirse hasta transcurridos muchos años, para entonces puede resultar imposible o muy costoso resolverlos.



## No actuar puede resultar más costoso que una acción temprana

- ***Es esencial el liderazgo político.*** Será necesaria una comunicación política sólida para efectuar los cambios que requiere el desarrollo sostenible. Aunque no cabe duda de que el desarrollo sostenible será benéfico para el conjunto de la sociedad, puede dar lugar a un *juego difícil de concesiones y compromisos* entre intereses contradictorios. Debemos afrontar estas decisiones con apertura y honradez. Los cambios en la actuación política deberán hacerse de forma justa y equilibrada, pero *no deberá permitirse que los inte-*

Joera jasangaitz horietarik oso gutxi dira, alabaina, berriak. Gizartearen eta gobernuen hainbat ekimenen bidez konpondu nahi izan dira arazo hauek guztiak. Ekimen horietako zenbaitek (21. Toki Programak, adibidez) frogatu dute eraginkorrak direla lekuan lekuko aldaketak egiteko adostasunak lortzeko. Baina, egundaino, arrakasta mugatua ekarri dute ahalegin horiek, oso zaila baita finkatutako politikak eta jokaerak aldaraztea eta adostutako erantzun bateratuak ematea. Horrenbestez, joera jasangaitz horiei aurre egiteko eta garapen jasangarriaren eremuetara heltzeko honakoa behar da: ***berehalako jarduera; gidaritza politikoa*** (konpromiso argiak eta ikusmira zabala dituena); ***ikusmira berria politikak egiteko; parte-hartze zabala eta nazioarte mailako erantzukizuna.***

## Arazo hauek konpontzeko gai–zerrenda politiko berria behar da nahitaez

- ***Berehalako jarduera behar da.*** Jasangarritasunaren desafioei aurre egiteko garaia heldua da. Garapen jasangarria arriskuan jartzen duten joeretako askok iraganeko jokabideak dituzte oinarritzat (dela produkzio-teknologiaren alorrean, dela lurraren erabileran edo azpiegituretan egiten diren inbertsioetan), eta nekez aldaraziko dira horiek epe laburrean. Egia da bioaniztasungaleraren ondorio larrienak, antibiotikoekiko erresistentziarenak edo klima-aldaketarenak ez direla –beharbada– urte luze igaro arte antzemango; hori gertatzen denerako, ordea, ezinezkoa edo oso garestia izan liteke arazo horiek konpontzea.

## Ezer ez egitea goiz jardutea baino garestiago gerta daiteke

- ***Ezinbestekoa da gidaritza politikoa.*** Komunikazio politiko sendoa beharko da garapen jasangarriak eskatzen dituen aldaketak gauzatu ahal izateko. Dudarik ez, garapen jasangarria onuragarria izango litzateke gizarte osoarentzat, baina elkarri kontrajarriak diren interesen *arteko hitzarmen- eta akordio-jokoa ere eragin lezake.* Beraz, zintzotasunez eta ikuspegi-zabaltasunez ekin beharko diegu eginkizun horiei. Oreka eta zuzentasunez egin beharko dira jarduera politikoaren alorreko aldaketak, baina *ez da nondik*

*reses sectoriales prevalezcan* sobre el bienestar del conjunto de la sociedad.

## Una actuación política basada en una visión coherente a largo plazo

- ***Nuevo enfoque en la formulación de políticas.*** Aunque la Unión Europea dispone de una amplia gama de políticas para tratar los aspectos económicos, ambientales y sociales de la sostenibilidad, la coordinación en su aplicación ha sido insuficiente. *Muy a menudo, las acciones para alcanzar los objetivos de una política impiden avanzar en otras,* mientras que las soluciones a los problemas suelen estar en manos de responsables políticos de otros sectores o de otros niveles de gobierno. Así se explican muchas de las tendencias insostenibles a largo plazo. Además, la falta de una perspectiva coherente a largo plazo implica una concentración excesiva en los costes a corto plazo e insuficiente en la posibilidad de alcanzar a largo plazo situaciones en las que todas las partes puedan salir ganando.

## Se espera una contribución de todos. Es fundamental que la Unión Europea desempeñe un papel determinante

- ***La actuación debe ser de todos y a todos los niveles****.* Muchos de los cambios necesarios para afianzar el desarrollo sostenible sólo podrán efectuarse con éxito a escala comunitaria. Existen ejemplos claros en ámbitos políticos en los que la Comunidad tiene una competencia jurídica exclusiva o en los que la integración de los mercados europeos puede suponer la ineficacia de las actuaciones individuales de los Estados miembros. En otros casos, será adecuada la actuación de los gobiernos nacionales, regionales o locales. En cualquier caso, *si bien es cierto que las autoridades públicas deben desempeñar un papel fundamental a la hora de facilitarun marco claro y a largo plazo, corresponderá en definitiva a los ciudadanos y a las empresas* adoptar los cambios de actitud y tecnología necesarios para alcanzar el desarrollo sostenible.

*ere onartu behar sektore jakin baten edo batzuen interesak* gizarte osoaren ongizatearen gainetik jartzerik.

## Epe luzerako ikuspegia, koherentea, oinarri duen jarduera

- ***Sektore-politiken aurkezpenaren ikuspegi berria.*** Europako Batasunak politika-aukera zabala du jasangarritasunaren ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-alderdiei ekiteko; hala eta guztiz ere, ez da behar bezalakoa izan politika horien aplikazioaren koordinazioa. *Sektore jakin baten politikaren helburuak lortzeko ekimenek galarazi egiten dute* –sarritan– beste batzuetan aurrera egitea; arazoen konponbideak, berriz, beste sektore batzuetako arduradun politikoen edo beste gobernuren baten esku egon ohi dira. Horra hor zergatik hainbat joera ez diren jasangarriak epe luzera. Bestalde, epe luzerako ikuspegi koherenterik ez edukitzeak honako ondorioa dakar: epe laburrerako kostuen gehiegizko kontzentrazioa, luzera begira alde guztiak onuradun gerta daitezen egoerak sortzeko gai ez dena.



## Denen esku-hartzea da beharrezkoa. Europako Batasunak protagonismo erabakigarria behar du izan zeregin horretan

- ***Denon jarduera, eta maila guztietan***. Garapen jasangarria finkatzeko behar diren aldaketetako asko Europako Batasun osoan egin beharko dira, baldin eta arrakastaz egin nahi badira behintzat. Adibide garbi askoak dauzkagu horretaz Batasunak eskumen juridiko esklusiboa duen hainbat alorretan, baita Europako merkatuen integrazioak EBko estatuen banakako jardueren eraginkortasun-eza nabarmentzen duen beste zenbaitetan ere. Beste batzuetan, berriz, egokia eta beharrezkoa da nazio, eskualde edo udal bakoitzeko gobernuen jarduera. Nolanahi dela ere *–eta agintari publikoek funtsezko eginkizuna duten arren epe labur eta luzerako esparru garbia finkatzen–, herritarrei eta enpresei dagokie,* azken batean, garapen jasangarria lortzeko behar diren jokaera- eta teknologia-aldaketak berenganatzea.

- ***Un socio responsable en un mundo global***. Muchos de los retos de la sostenibilidad presentan este aspecto y requieren una respuesta a escala mundial. El cambio climático y la biodiversidad son dos ejemplos obvios. La Comisión cree que los países desarrollados deben ser líderes en el camino hacia el desarrollo sostenible y pide a los demás países desarrollados que acepten sus responsabilidades. La Comisión entiende que *la Unión Europea debería empezar por poner orden en su propia casa* para poder tomar el liderazgo internacional y como primer paso hacia la sostenibilidad mundial. Dado que la producción y el consumo de la Unión Europea tienen impactos allende nuestras fronteras, también debemos garantizar que todas nuestras políticas contribuyan a las perspectivas de desarrollo sostenible a escala mundial.

## Actuar en casa permitirá asumir el liderazgo internacional

Para responder a estos desafíos, la Comisión propone una estrategia comunitaria en tres partes:

1. Una serie de ***propuestas y recomendaciones transversales*** con el fin de mejorar la eficacia de la actuación política y de crear las condiciones para el desarrollo sostenible. Esto significa cerciorarse de que las distintas políticas se refuerzan entre sí en lugar de ir en direcciones opuestas.
2. Una serie de ***objetivos primordiales y medidas específicas*** a escala comunitaria para responder a los principales retos del desarrollo sostenible en Europa.
3. Pasos para ***aplicar la estrategia y examinar los avances conseguidos.***

- ***Partaidetza arduratsua mundu global honetan***. Tankera horretakoxeak dira, bada, jasangarritasunaren hainbat eta hainbat desafio, eta mundu nmailako konponbidea eman behar zaie. Klima-aldaketa eta bioaniztasuna dira horren adibide nabarmenak. Batzordearen iritziz, herrialde garatuek gidari izan behar dute garapen jasangarrirako bidean; honenbestez, norberari dagozkion erantzukizunak bere gain har ditzala eskatzen die gainerako herrialde garatuei. *Europako Batasunak bere etxea txukundu eta taxutu beharko luke lehenbizi* –hala deritzo Batzordeak– nazioarteko gidaritzari ekin ahal izateko, mundu osoko jasangarritasunerako bidean lehen pauso gisara. Europako Batasunaren produkzioak eta kontsumoak gure mugetatik haraindi ere eraginik badutenez, bermatu beharra daukagu gure politikak lagungarri zaizkiola mundu mailako garapen jasangarriaren proiektuari.

## Etxean jarduteak ematen du nazioartean gidaritza eskuratzeko bidea

Erronka horiei aurre egiteko, hiru ataletan banatutako estrategia erabili behar du EBk, Batzordearen ustez:

1. ***Zeharkako hainbat proposamen eta gomendio,*** jarduera politikoaren eraginkortasuna hobetzearren eta garapen jasangarrirako baldintzak finkatzeko. Horretarako, sektore-politikek elkar sendotzera –eta ez bata bestearen kontrako bidetik ibiltzera– jo behar dute.
2. **Oinarrizko *helburuak eta neurri espezifikoak*** –EB osoan– garapen jasangarriak Europan dituen erronka nagusiei erantzuteko.
3. ***Estrategia aplikatzeko eta lortutako aurrerapausoak*** aztertzeko urratsak.

## II. CREAR LAS CONDICIONES PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE: ALCANZAR NUESTRAS AMBICIONES

Para alcanzar el desarrollo sostenible serán necesarios cambios. Debemos tratar el problema de las deficiencias en la formulación y aplicación de la política, tanto en la Unión Europea como en los Estados miembros. A su vez, este ejercicio requiere un compromiso claro al más alto nivel. En este capítulo se presentan varias propuestas destinadas a dar respuestas más eficaces a los retos que deberemos afrontar.

### Deben modificarse las políticas actuales

#### Mejorar la coherencia de la actuación política

El desarrollo sostenible debería pasar a ser el objetivo central de todos los sectores y de todas las políticas. Así pues, los responsables políticos deberían determinar las posibles repercusiones –positivas o negativas– para los demás ámbitos políticos y tenerlas en cuenta. Una ***evaluación minuciosa de todos los efectos*** de una propuesta de actuación política debe incluir estimaciones de su impacto económico, medioambiental y social, tanto dentro como fuera de la Unión Europea. Esto deberá incluir, si procede, el impacto en la igualdad entre hombres y mujeres y la igualdad de oportunidades. Es especialmente importante determinar los grupos que llevarán el peso del cambio para que los responsables políticos puedan evaluar la necesidad de medidas de adaptación. Las evaluaciones deberían realizarse de acuerdo con un enfoque más coherente y con la experiencia que han adquirido muchos ámbitos de actuación política.

### Todas las políticas deberían ser juzgadas en función de su contribución al desarrollo sostenible

Para evaluar las propuestas de forma sistemática es necesaria una ***información más adecuada***. Por ejemplo, todavía no se comprende perfectamente lo que supone el envejecimiento de la población, o las consecuencias para la biodiversidad y la salud pública de algunos tipos de contaminación ambiental o de productos químicos como los perturbadores endocrinos. Sin embargo, de conformidad con el principio

## II. GARAPEN JASANGARRIRAKO BALDINTZAK SORTZEA: GURE HELBURUAK LORTZEA

Hainbat aldaketa egin beharko dira garapen jasangarrira heltzeko. Politiken formulazioan eta aplikazioan ditugun arazoei ekin beharra daukagu, bai Europako Batasun osoan bai horren partaide diren estatu guztietan. Jarduera horrek, bestalde, konpromiso garbia eskatzen du maila gorenetan. Hainbat proposamen aurkeztuko ditugu kapitulu honetan, aurrean ditugun desafio nagusiei erantzun eraginkorragoak emateko asmoz.

### Gaur egungo politikak aldatu beharra dago



#### Egungo politikaren koherentzia hobetu beharra

Garapen jasangarria bihurtu beharko litzateke sektore eta politika guztien helburu nagusi. Hortaz, politikariek zedarritu eta kontuan hartu beharko lituzkete gainerako politika-eremuetan eragin litzaketen ondorioak –positiboak zein negatiboak–. Jarduera politikorako proposamen batek izango ***lituzkeen ondorio guztien azterketa*** zorrotza egiteko haren ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-inpaktuaren kalkuluak –EBren barruan zein kanpoan– ere egin behar dira. Horren barruan sartu behar da –hala balegokio– gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunean eta aukeren berdintasunean izango lukeen eragina. Bereziki garrantzitsua da aldaketaren zama zein taldek berenganatuko duten zehaztea, arduradun politikoek egokitze-neurririk behar ote den azter dezaten. Ikuspegi koherenteagoa erabiliz eta jarduera politikoaren alor askotako eskarmentuaz baliatuz egin beharko lirateke ebaluazioak.

### Garapen jasangarriari egiten dioten ekarpenaren arabera epaitu beharko lirateke politika guztiak

***Informazio egokiagoa*** behar da proposamenak sistematikoki ebaluatzeko. Adibidez: oraindik ez gara ongi jabetzen biztanleriaren zahartzeak ekarriko dituen ondorioez, edo ingurumen-poluzio mota batzuek eta hainbat produktuk – asaldatzaile endokrinoek, adibidez– bioaniztasunean eta osasun publikoan eragingo dituztenez. Dena den, eta zuhurtzia-printzipioaren arabera, ezaupide-gabezia ez da aitza-

de precaución, la falta de conocimientos no debe ser una excusa para la falta de acción o una acción poco sopesada. Los riesgos y la incertidumbre forman parte de la vida. El papel de la ciencia y la investigación es ayudar a determinar la naturaleza de los riesgos que corremos, para darnos la base de las soluciones y decisiones políticas que conviene adoptar. Los responsables políticos tienen la obligación de gestionar los riesgos con eficacia y de explicar claramente al público su naturaleza y magnitud.

### Medidas

